

2023KO EKAINAREN 1(E)KO XEDAPENA, OSATEK, S.A. SOZIETATEKO ZUZENDARI GERENTEARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA, MEREZIMENDUEN PUNTUAZIOAREN ARABERA, OSATEK-EN DESTINOA DUTEN ADMINISTRARIAREN KATEGORIAKO LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZATEKO, MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 13an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 14an emandako xedapenaren bidez, onartzen dira OSATEK-en destinoa duten administrariaren kategorian lan-kontratu finkoko langileak merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

Osatek, S.A.-ko zuzendari kudeatzaileak 2023ko maiatzaren 10ean emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen OSATEK-en destinoa duten administrariaren kategorian lan-kontratu finkoko langile izateko hautaketa-prozesuko izangaien behin-behineko zerrenda, merezimenduen puntuazioaren arabera, merezimendu-lehiaketa bidez.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, behin-behineko zerrendaren ondoren, zuzendari gerenteak izangaien behin betiko zerrenda onartu du, merezimenduen puntuazioaren arabera.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa: Izangaien behin betiko zerrenda onartzea, puntuazioaren arabera. Xedapen honen eranskinean dago.

Bigarrena: Xedapen hau OSATEK-en webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/2022ko-enplegu-eskaintza/>) eta Campo&Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena: Lanpostuak puntuazio-hurrenkeraren arabera esleituko zaizkie izangaiei, eta hamar egun balioduneko epea ezarriko, xedapen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita da hautaketa hori egiteko. Beraz, puntuazio handiena lortzen duena destinoa aukeratzen lehena izango da, eta horrela hurrenez hurren.

Laugarrena: Pertsona interesdunei jakinaraziko zaie hautatuak izan direla, eta Osatek, S.A.-n aurkeztu beharko dituzte, kontratazioa egin baino 10 egun baliodun lehenago, 2. oinarrian jasotako parte hartzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak. Horretarako, jatorrizko agiriak edo horien kopia kopulatsuak aurkeztu beharko dituzte, aurretik aurkeztutako dokumentazioa osatu arte.

Bosgarrena: Hautagaiek eskatutako dokumentazioa ezarritako epean aurkezten ez badute, prozesutik kanpo geratuko dira, eta OSATEKek hautagai hau kontratatu ahal izango du, prozeduraren amaierako puntuazio-ordenari jarraikiz.

Seigarrena: Xedapen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osatek, S.A.-ren Administrazio Kontseiluari, idatziz, posta-helbide honetan: Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua. 48011 Bilbao, hilabeteko epean, webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.